

# Eskolako Agenda 21

Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alde



# Agenda 21 Escolar

Por la educación para el desarrollo sostenible

## ESKOLAKO AGENDA 21 BETETZEKO KONPROMISO-AKTA

Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategia (2002-2020), ingurumen-gaiei buruzko Europar Batasunaren VI. Programa eta Nazio Batuen Erakundeak 2005-2015 aldia Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren hamarkadatzat hartzea direla-eta, administrazioei, hezkuntza-elkarteari eta herritarrei gomendatu eta eskatu egiten zaie garapen iraunkorra lortzeko itunak egitea eta erantzukizuna hartzea.

Deklarazio hau sinatuta, baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzearen, biztanleriaren bizi-kalitatea ziurtatzearen eta herritarrak garapen iraunkorrerako gaitzearen garrantzia eta beharra onartzen dugu.

Onartzen dugu, era berean, Euskadiko gazteek eta haurrek euren hiririari eta garapen iraunkorrari buruzko gauzak esateko eta ekarpenak egiteko dituztela. Horregatik bultzatzen dugu Eskolako Agenda 21, ikasleak euren ikastetxearen eta udalerraren ingurumen-kalitatean eragina duten arazoetan parte hartzen, erabakiak hartzen eta inplikatzeko ohitzea helburu duen hezkuntz programatzat.

Jendaurrean adierazten dugu Eskolako Agenda 21 eraikitzen gogoz lan egiteko hartu dugun konpromisoa. Horrek eskatzen du ingurumenarekiko erantzukizunaren zentzua sustatzea, ingurumenarekin lotutako betebeharrak betetzea aldizka informatu eta ebaluatzea, eta ingurumenaren egoera, balore demokratikoak eta gure ingurunearen iraunkortasuna arian-arian eta etengabe hobetzera zuzendutako neurriak hartzea.

## KONPROMISOAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, IIHIIen bidez, aholkularitza didaktikoa ziurtatuko du, baita parte hartzen duten irakasleen prestakuntza eta ikasmaterialeen eskaintza ere. Diru-laguntzak eskainiko ditu ikastetxeentzako urteroko deialdien bitartez eta udalekin edo mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmenen bidez.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza lehentasunezko programatzat tratatzea bermatuko du. Horretarako, irakasleen laneko esparrua eta ordutegia Eskolako Agenda 21 programaren koordinazio- eta berrikuntza-eskakizunetara egokitzeko bidea emango du.
- Udalek eta mankomunitateek Tokiko Agenda 21 programaren zatitza hartuko dute Eskolako Agenda 21. Eskolako partaidetza-foro bat ezarri eta sustatuko dute, hiri-ingurumena aztertzeo eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko. Kanpoko aholkularitza baten edo laguntza-enpresa baten bitartez proposamenei erantzun eta ikastetxeei lagunduko diete.
- Ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum- eta hezkuntza-proiektuetan barne hartuta, haren filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko dute. Ikastetxeen ingurumen-batzordeak eratu eta proiektuaren arduraduna izendatuko dute. Garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte. Gainera, urteko emaitzak eskola- eta udal-elkarteari jakinaraziko dizkiote.

Bilbon, 2004ko urriaren hamalauan.

Anjelos Iztueta

Enrique Zabala Etxebarria  
Centro Formativo Otxarkoagako Zuzendaria  
Director del Centro Formativo Otxarkoaga

Anjeles Iztueta Azkue  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua  
Consejera de Educación, Universidades e Investigación

Sabin Intxaurre Mendibil

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua  
Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

Iñaki Azkuna Urreta

Bilboko Alkatea  
Alcalde de Bilbao

## COMPROMISOS

- El Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, a través de los CEIDA, garantizará la asesoría didáctica, la formación del profesorado participante y la oferta de materiales didácticos. Ofertará ayudas económicas a través de las convocatorias anuales de subvención a centros escolares y por medio de convenios con Ayuntamientos o Mancomunidades.
- El Departamento de Educación, Universidades e Investigación garantizará el tratamiento de la Educación para el Desarrollo Sostenible como programa prioritario y para ello facilitará la adecuación del marco y el horario de trabajo del profesorado a los requerimientos de coordinación e innovación que la Agenda 21 Escolar requiere.
- Los Ayuntamientos y Mancomunidades considerarán la Agenda 21 Escolar como parte integrante de la Agenda 21 Local. Establecerán y dinamizarán un foro de participación escolar que analice el medio ambiente urbano y recoja las propuestas de los centros escolares. Responderán a las propuestas y apoyarán a los centros a través de una consultoría externa o empresa de apoyo.
- Los centros educativos se comprometen a elaborar el proyecto de Agenda 21 Escolar y ponerlo en marcha de modo coherente con su filosofía y metodología, integrándolo en los proyectos curricular y educativo. Constituirán los comités medioambientales del centro y designarán la persona responsable del proyecto. Dinamizarán el proceso desarrollado y evaluarán los resultados obtenidos y comunicarán los resultados anuales a la comunidad escolar y municipal.

En Bilbao, a catorce de octubre de 2004.